



JAKARTA 2013TIK EUSKAL HERRIA 2017RA  
ELIKADURA BURUJABETZA ERAIKIZ EUSKAL HERRIAN

# ELIKADURA BURUJABETZA ETA FEMINISMOAK

~ 4. LIBURUXKA ~

## KOORDINAZIOA

**Agroekologia** eta **Ondasun Kolektiboak**: EHNE Bizkaia

**Elikadura Burujabetza eta Feminismoak**: BIZILUR-Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea y Mundubat

**Ekonomia Solidarioa. Elikadura sistema lokalak sortzeko bidea**:

VSF-Herrien Bidezko Elikadura eta Emaús Fundazio Soziala

## DISEINUA ETA IRUDIAK

[www.enriquevinuela.com](http://www.enriquevinuela.com)

## ITZULPENA

Igone Regidor García de Albéniz

## LEGE-ORDAILUA

BI-1314-2015

Ez du merkataritza izaerarik. 3.0 lizentzia beraren pean partekatu. Lan hau edonork kopia, parteka eta bana dezake publikoki, baldin eta egilea aipatzen bada eta merkataritzako helburuekin erabiltzen ez bada. Dokumentua nolabait aldatzen bada edo horretatik abiatuta beste lan bat prestatzen bada, honen berdina den lizentziapean bakarrik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa: [creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/)



## ARGITALPENA DOAN DESKARGATZEKO

[www.elikaherria.eus](http://www.elikaherria.eus)

## EUSKAL HERRIA, 2015EKO IRAILA

## FINANTZIATZAILEA



## LAGUNTZAILEA



**La Vía Campesinak** bere proposamena Elikadura Burujabetzaren inguruan definitzen duenetik, hura osatzen dugun elkarteok hainbat tresna prestatu ditugu proposamen hori gure lurraldean aurrera eramateko. Funtsezko tresna horietako bat da, gure ustez, prestakuntza. Hori dela eta, duela urte batzuk prestakuntza lana burutzen dugu zentzu horretan, aurrez aurreko ikastaroak eta foro desberdinak antolatuz. Elikadura Burujabetza garatzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun zenbait elementutan oinarritu da lana: beste erakundeekin batera egindako lana, ikuspuntu integrala eta kolektiboa.

Material honekin, oinarrizko elementu horiek aditzera eman nahi ditugu, eta Elikadura Burujabetza lortzeko prozesuan garrantzitsuak diren ardatzen inguruan garatu ere bai. Heldu beharreko lehen ardatza Agroekologia da, nekazariak hautatu duten ekoizpen eredu soziala, proiektuarekin aurrera egiten laguntzeko. **Agroekologiak**, ikusteko ikuspuntu berria ematen digu, hainbat dimentsioren bidez: teknikoenetik begiratzeak egunero jarduteko balio digu, lurrarekin eta gure ekosistemekin harremanetan gaudela; politikoenetik begiratzean, aldiz, gure prozesuetan erabakiak hartzeko dugun gaitasunari erreparatzen zaio. Zentzu horretan, prozesuak berak garrantzia handia hartzen du eredu aldatzeko orduan, modu kolektiboan hartuta, epe ertainean eta luzean. Banakakoa baino harago begiratzeko gai izan behar gara, eta egunero berehalako emaitzak izateko dugun behar hori gainditzen jakin behar dugu.

Nekazal munduan, prozesu horrek oinarrizko beste ardatz bat ere badu: Sarbidea **Ondasun Kolektiboetara** edo “bizitza iturrietara”; ura, haziak, lurra, ezagutza eta zaintzak guztion esku egon eta guztioi zuzendutako begiradaren bidez kudeatu behar dira, ez erruz agintariak “interes orokorra” deitu ohi duten horren bidez. Horretarako, ezinbestekoa da begirada kolektiboa berreskuratu eta horren inguruan hausnartzea, ondasun horiek mantentzen eta berreskuratzen jarraitzeko. Izan ere, merkatu kapitalista dela eta, beste edozein salgaiztat hartu ohi dira gaur egun.

Ondasun komun horiek definitzean, duela zenbait urtetik hona, zaintzak ere sartu ditugu, bai hirietan bai landa guneetan ekonomia feministak eta feminismo berriak sortzeak duten eraginetik abiatuta. Elikadura Burujabetza kontzeptuak berak justizia sozialarekiko konpromisoa biltzen du eta, hortaz, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko konpromisoa ere. Hori dela eta, **Feminismoen eta Elikadura Burujabetzaren** arteko harremana aukeratu dugu analisirako hirugarren ardatz gisa.

Azken ardatzari dagokionez, azpimarratu gura genuke Elikadura Burujabetzaren aldeko borroka beste borroka zabalago baten barruan sartzen dela, merkatu kapitalistak ekarritako balioak aldatzera bideratutakoa, hain zuzen. Horretarako, **Ekonomia Sozial eta Solidarioan** aurkitzen dugu mundu justuago baten alde borrokatzen duten hainbat arlotako pertsonak biltzen dituen eremua, begirada pertsonen benetako beharretara eta ez merketin kapitalistak sortutako nahietara zuzentzeko.


Material hauetan, ardatz bakoitzaren inguruan hainbat kolektibok partekatutako hausnarketak biltzen dira. Espero dugu baliogarriak izatea abiapuntu gisa erabiltzen ditugun printzipioen, eta etorkizunera begira ditugun erronken gainean hausnartzeko eta horien analisia egiteko.

JAKARTA 2013TIK EUSKAL HERRIA 2017RA  
ELIKADURA BURUJABETZA ERAIKIZ EUSKAL HERRIAN

# ELIKADURA BURUJABETZA ETA FEMINISMOAK

~ 4. LIBURUXKA ~

1. SARRERA .....	8
2. ELIKADURA-BURUJABETZA ETA FEMINISMOAK .....	9
3. FEMINISMOAK ETA EMAKUME NEKAZARIAK EUSKAL HERRIAN .....	15
4. EUSKAL HERRIKO EMAKUME BASERRITARRAK: ERAIKITZEN ARI DEN NEKAZAL FEMINISMOAREN LORPENAK ETA ERRONKAK .....	16
5. ERRONKAK .....	23
ERASKINA: LA VÍA CAMPESINA-KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO AGIRIA .....	24




## 1. SARRERA

Elikadura Burujabetzak, ikuspuntu alternatibo bat eskainiz, egungo eredu soziala, politikoa eta ekonomikoa berrantolatzea proposatzen du, berdintasuna eta justizia soziala lortze aldera. Horretarako, berrikusi eta berrantolatu behar dira nekazaritzako elikadura sistema, ekoizpena, kontsumoa eta ezagutzen mantentzea eta transmisioa. Eta, horretarako, aldi berean, sistema osatzen duten genero harremanak, gizon eta emakumeen arteko botere-harremanak, emakumeek egiten duten lanaren ikusezintasuna eta zainketen garrantzia aztertu behar dira. Hau da, bizitzak erdigunean kokatzeak duen garrantzia; bizitzaren iraunkortasuna mantentzeak duen garrantzia eta hori nola lortu. Azken batean, bai feminismoaren bai Elikadura Burujabetzaren helburua da hori.

Hori dela eta, liburuxka honetan feminismoaren eta Elikadura Burujabetzaren arteko zenbait lotura helarazi nahi dizkizugu, bai orokorrean bai Euskal Herriaren kasu zehatzean, etorkizuneko erronken gaineko hausnarketa sustatzeko.

*Elikadura Burujabetza benetako aukera praktikoa bilakatu da emakumeentzako. Iparraldean zein Hegoaldean*



## 2. ELIKADURA-BURUJABETZA ETA FEMINISMOAK: EZINBESTEKO LOTURA

### BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA ETA EMAKUMEEN ROLA

**Bizitzaren iraunkortasuna** esaten dugunean, gizakien arteko botere-harremanak barne hartzen ditugu. Horiek nahitaez aldatu behar dira egungo sistema hegemoniko, androzentriko eta patriarkala ordeztzeko. Sistema horrek emakumeak ikusezin egiten ditu bizitzako alor guztietan; emakumeak bigarren mailako biztanleak izatera behartzen ditu, izan ere, albo batera uzten gaitu egitura politiko eta ekonomikoetan, baita erkidegokoetan ere. Horretarako, mugimendu feministak etengabe bilatzen ditu gure garaira egokitzen diren bestelako aukerak; kasu honetan, zenbait lerro aurkeztuko ditugu Elikadura Burujabetza benetako aukera bilakatu dela frogatzeko, eta emakumeen praktikei ere helduko diegu, bai Iparraldean bai Hegoaldean. Hegoalde globaleko emakumeek duela zenbait hamarkadatan zehar lurra landu duten bitartean, Iparralde globaleko emakumeek (nahiz eta horietako askok lurrarekiko lotura mantendu duten) natura nolabait ahaztu egin dugu. Ez dugu naturan pentsatu krisialdi honetatik irteteko aukera gisa.

Egun bizi dugun sistema kapitalistan (edo, hobe esanda, horretan “elkarrekin bizitzen” saiatzeko gara) ondasun naturalak ahal baino gehiago ustiatzen dira, neurririk gabe erabiltzen baitira. Aldi berean, ondasun naturalak merkaturatzean eta pribatizatzean, berrekoizpenaz, ekoizpenaz eta zaintzaz arduratzen diren emakumeak ikusezin bihurtzen dira, eta beren lana ez da aintzat hartzen ekonomia finantzario globalizatu honetan. Emakumeek dituzte, besteak beste, lurrari, haziei, ondasun

naturalen zainketei eta elikagaien ekoizpenari buruzko ezagutzak, batez ere beren jatorrizko herrietan. Laburbilduz, naturaren erritmoari buruzko ezagutzak. Hori dela eta, bizitzaren iraunkortasuna bermatzen duen eragile aktiboa dela esan daiteke, baina gutxietsi ohi dena. Betidanik emakumeak izan dira protagonistak nekazaritzako ekoizpenean; emakume nekazariak eskertu behar zaie Hegoalde Globaleko herrialdeetako elikadura ekoizpenaren %60-80 inguru, eta mundu mailakoaren %50 inguru. Hala ere, nekazaritzako lurren %1 soilik da emakumeena. Nekazaritzan egiten duten lanari eta horren bidez metatu duten lanari esker, gizateria elikatzen duen motor nagusia emakumeak direla esan daiteke, lantzen eta ezagutzen dituzten lur horien gainean gizonek dituzten eskubide berdinak izan ez arren.

Gizateriak naturarekin duen berdintasunezko harremanaren ikuspuntutik bizitzaren iraunkortasuna aztertzen badugu, benetako aldaketak gertatu beharko lirateke ekoizpen, berrekoizpen, kontsumo eta banaketa ereduetan; lanaren kontzeptuari esanahi berria eman beharko lekiok, batez ere emakumeek burutzen dutenari; berrekoizpen eta ekoizpen lan guztiak aintzatetsi beharko lirateke; Estatuak eta gizonek lana partekatu beharko lukete, eta denek egindakoa modu berean baloratu beharko litzateke.

Sistema kapitalistaren eta patriarkalaren arteko lotura konplexua da. Halaxe ikus daiteke bereziki landa inguruneetan, izan ere, bertan argi eta garbi ikus daiteke merkatu kapitalisten interesen (hau da, ahal beste irabazi lortzea) eta bizitzaren

iraunkortasunaren artean dagoen kontraesana. Eta horren barruan landa ingurunekeo emakumeak dira kaltetuenak, diskriminazio bikoitza (gutxienez) bizi baitute: alde batetik, landa inguruneak eta horri lotutako lanak bizi duten gutxieste sozialagatik, elikagaien ekoizpena barne; bestetik, genero diskriminazioagatik. Horren ondorioz, gizonekin alderatuta, emakume nekazari gehienek ekoizpenerako sarbide murriztua dute; beren lana eta ekarpen ekonomikoa ikusezinak dira eta gutxietsi ohi dira; babes sozial gutxiago dute bermatuta; eta, oro har, politikan eta antolakuntzan parte hartzeko aukera gutxiago izaten dituzte. Ondorio hauek zenbait adibidebaino ez dira **(1)**.

## EMAKUMEEN ROLA LANDA INGURUNEAN

Lehen, emakumeak arduratzen ziren ekoizpenaz, ereiteaz eta hazien merkaturatzeaz; egun, ordea, zirkuitu osoa kontrolatzen duten enpresa handien talde txiki baten esku daude prozesu horiek. ETC Group taldearen datuen arabera, 2006an **(2)** hazien hamar enpresa handienek munduko merkatuaren %57a kontrolatzen zuten. Horien artean, Monsanto zen handiena, munduko merkatuaren %20a kontrolatzen duena. Gainera, enpresa horiek hazien ekoizpenerako teknologia ere kontrolatzen dute, hau da, herbiziden ekoizpena. Hala, herbizida batzuekiko erresistenteak diren haziak ekoizten dituen enpresa batek, hazi horiek erabiltzen dituzten nekazariak herbizida hori erabiltzera ere behartzen ditu. Horren bidez, menpekotasuna sortzeaz gain, hazien prezioak kontrolatzen dituzte.

Lehen, emakumeek egiten zuten lan hori, **tokiko hazien zaintzaileak** ziren, eta klimaren, izurriteen eta gaixotasunen arabera hautatzen zituzten. Gainera, sendabelarrak eta sendabideak ezagutzen zituzten. Baina eginkizun hori apurka-apurka galdu egin dute. Ekoizteko eredu kapitalistaren eta nekazaritza bera eta ondasun naturalak pribatizatzearen ondorioz, kasu gehienetan haziak zuzenean enpresei erosten zaizkie, eta horiekin batera pakete teknologiko osagarria. Lehenago aipatu dugun bezala, ekoizpen-katea sortzen da esparru kapitalistaren babespean, eta nekazaritza pribatizatu egiten da. Gaur egun, Europako araudiak oraindik debekatu egiten du emakumeek beren haziak saltzea, eta horrekin oztopatu egiten du emakume horiek hurrengo belaunaldiei beren ezagutzak transmititzea. Era horretan, hazien partekatze askea oztopatzen da, eta agrotoxikoak edo antzeko produktuak ekoizten dituzten enpresa handiak aberastu egiten dira.

Historian zehar, emakumeak nekazaritzako lan informalarri eta ekimen txikiei (elikagaien eta artisau-lanen ekoizpenean, eraldaketan eta salmentan) lotuta egon dira, familia mantentzeko baliabide ekonomikoak lortzeko balio baitzuten. Gizonak izan dira “familiaburuak” eta, neurri batean, beren enplegua erregularizatuta egon da; emakumeek, ordea, eskala txikiko diru-sarrerak lortu dituzte, erregularizatu gabekoak, eta familiaren ongizatean inbertitu dituzte. Hala gertatzen da bereziki Hegoalde Globaleko herrialdeetan, ekonomia informalarriaren portzentajea eta emakumeek horren aurrean bizi duten

babesgabetasuna ikaragarrikoak baitira. Horrez gain, ekonomia informalarriaren zati handi bat **elikagaien eraldaketarekin** eta beste familia batzuk horiez hornitzearekin du zerikusia. Gauzak horrela, emakumeek beraiek elikadura eta ekoizpen eredu berria eskatzen dute, eta nekazariak izanik eredu iraunkor batean lan egiteko eskubidea erreibindikatzeko dute.

## ELIKADURA BURUJABETZAREN ALDEKO BORROKA FEMINISTA

La Vía Campesina **(3)** ko emakumeen erreibindikazio agendak **genero justizia** eta Elikadura Burujabetzaren proposamenaren garapena lotzen ditu. Izan ere, emakumeek zeregin garrantzitsua dutela aldarrikatzeaz gain, herriak eta biztanleak berdintasunean oinarrituta garatzeko behar den etika dela uste dute. Hori dela eta, elikadura-politikak aldatzea proposatzen dute, herrien interesetan oinarrituta, eta horretarako balio kolektiboak berrantolatu behar dira.

2007an, Nyéléni hirian (Mali) Elikadura Burujabetzari buruzko Foroan, ehunka emakume nekazari honako honi eutsi zioten: “Lurretara, lurraldeetara, urera eta hazietara sarbidea izateko borrokatzen dugu. Finantzaziora eta nekazaritzako tresneriara sarbidea izateko borrokatzen dugu. Lan-baldintza onak izateko borrokatzen dugu. Prestakuntza eta informazioa izateko borrokatzen dugu. Gure autonomiaren eta guk geuk erabakitzekeo eskubidearen alde borrokatzen dugu, baita erabakiak hartu behar direnean prozesu horretan parte hartzeko eskubidearen alde ere” **(4)**. Foroan gai hauei heldu zitzairen,

besteak beste: instituzio tradizionalak, familia, herentzia, emakumeek inongo jabetzarik izateko galarazpena eta multinazionalen lurrak kontrolatzeak dituen ondorioak.

Une horretatik aurrera, emakumeen mundu mailako zenbait mugimendu feministek elikadura burujabetzaren gaiari ikuspegi feminista batetik eustea erabaki zuten. Adibidez, Emakumeen Mundu Martxa osatzen duten emakumeek lau ardatzetan oinarritzen dira **(5)**:

1. Emakumeek nekazaritzan egiten duten lana agerian uztea eta aintzatestea.
2. Emakumeen hitza eta botoa emateko eskubidea aintzatestea.
3. Emakumeek nekazaritzaren gainean dituzten ezagutzak aintzatestea.
4. Ongi Bizitzea lortzea, eta horrek etxeko lanak eta emakumeen agenda berrikustea eskatzen du.

Mugimendu feministen artean, emakume nekazariekin lan egitea da Emakumeen Mundu Martxaren bereizgarria. Mugimendu feminista hasi zenean, batez ere hirietan borrokatzen zen; hori dela eta, landa ingurunean bizi ziren emakumeak beranduago batu ziren borroka horretara. Gauzak horrela, apurka-apurka Emakumeen Mundu Martxa emakume nekazari zuzentzen hasi zen, horien eskubideak babestuz, eta aliantzak sortu ziren LVCrekin (La Vía Campesina). Horrela, mugimendu feministaz gain, nekazarien mugimenduak ere emakumeen aurkako indarkeria bezalako gaiak gehitu ditu bere agendara. Eta hor sartzen da, besteak beste, emakume

**(1)** MUNDUBAT (2014): **Feminismos, Soberanía Alimentaria y Ecologismo**. Isabel de Gonzaloren sarrera.

**(2)** ETC Group (2007): **Las 10 compañías de semillas más importantes del mundo**. ETC Group.

**(3)** García Fores, E. (2011): **Propuestas para una estrategia de género y Soberanía Alimentaria**. En Rivera-Ferre et al. 116.-124. orrialdeak.

**(4)** Emakumeen Aitorpena Elikadura Burujabetzaren alde, Mali 2007

**(5)** MUNDUBAT (2013): **Alternativas Feministas ante las crisis**. Argitaletxea: Gakoa, Donostia. 14.-15. orrialdeak

nekazariak eskubide ekonomikoak lotuta pairatzen duten indarkeria. Martxan parte hartzen dutenek diote aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa dela oinarrizko elkarteekin eta emakume nekazariekin batera lan egitea, besteak beste.

Emakume nekazariak hainbat zentzutan diskriminatzen dira, eta hala egiazta dezakegu beren gehiegizko lan ikusezinari erreparatzen badiogu. Gainera, askotan ez dute dirurik jasotzen lan horren truke. Emakumeek luzaro egiten dute lan baratzean ustiapen handiak zein txikiak aurrera ateratzeko; hala ere, nekazaritzako lanaz gain, ordaintzen ez diren zainketa lanak egiten jarraitzen dute emakumeak. Emakumeen jarduera ekonomikoan ezegonkortasuna eta iragankortasuna dira nabari. Askotan lan informala izaten da, eta maiz emakumeek beraiek ere ez dute lantzat hartzen. Emakumeek jarduera anitz egin ohi dituzte; zainketez eta nekazaritzako lanaz gain, batzuetan soldatapeko beste lan bat ere badute beste sektore batean. Ondorioz, erantzukizun gehiegi dituzte.

Araudiari dagokionez, titulartasunari buruzko legearekin lortutakoa azpimarra daiteke; izan ere, horri esker aurrerapauso bat eman da emakumeek ustiategian eta familiarekin egiten duten lanaren aintzatespenean. Aurrerapauso hori landa ingurunean emakumeen borrokari zor zaio. Hala ere, emakume gehienek ez dute titulartasun partekatua hautatu alderdi ekonomikoak edo kulturalak direla eta. Gaur egun, bertan lan egiten duten arren, emakume asko ez dira ustiategiaren jabeak.

Tradizionalki, emakume nekazariak diskriminazio hori pairatu dute historian zehar. Horren ondorioz, ez da aintzatesten eragile ekonomiko gisa, ezagutzen transmisioan eta ekoizpenean egiten duten lana. Baina emakume nekazariak antolatzen hasi dira eraldaketa sozialaren alde, eta

aktiboki parte hartzen dute nekazaritzako erakunde mistoak sendotzeko; elikadura burujabetzaren eta lurren alde borrokatzeko; eta emakumeen bizitza eta nekazaritzan egiten duten lana oztopatzen dituzten politika neoliberalerai aurre egiteko.

Bestalde, badira ere egun landa ingurunean sartu diren emakume nekazariak. Hauek beren ustiategi propioak dituzte eta gizarte segurantzaren inskribatzen hasi dira. Errealitate hau gero eta maizago ikusten dugu, eta aukera bikaina da krisiari aurre egiteko.


## EMAKUME NEKAZARIEN AHOTSA NAZIOARTEAN

1993an eratu zenetik, La Vía Campesina haziz eta sendotuz joan da, eta nekazarien mugimendua herrien borrokaren erdian jartzea lortu du. Baina zer gertatu da emakume nekazariarekin? Badira eskakizun feministak La Vía Campesina-n? Nola garatu dira eskakizun horiek?

La Vía Campesina-n, zenbait genero estrategia definitu dira, maila organikoan zein politikoan, gizon eta emakumeen arteko berdintasunetik abiatuta Elikadura Burujabetzaren paradigma eraikitze aldera.

### Emakumeen Nazioarteko Batzordea,

La Vía Campesina-ren lurralde guztietako ordezkariak dituena (Emakumeen Lurraldeko Koordinatzaileen bidez) Nazioarteko Koordinazio Batzordearen bileren aurretik biltzen da, hau da, urtean lau aldiz. Besteak beste, batzorde honen eginkizuna gizon eta emakumeen arteko parte-hartzea berdina dela bermatzea da, La Vía Campesina-ren arlo guztietan. Emakumeek haienezako sortutako gune honek lagundu egiten du emakume nekazarien garapenean eta beren eskakizun zehatzak aldarrikatzeko orduan, ez bakarrik eskakizun kolektiboak egitean.



*Emakumeek nekazaritzan duten lana agerian utzi behar da, beren jakintzak eta ezagutzak aintzatetsiz*

La Vía Campesina-ko emakumeek onartu egiten dute nekazaritzako erakundeetan dagoen kultura matxista oraindik ere egitura eta antolakuntza mailan dagoen oztopo bat dela. Halaber, zera argitzen dute: erakunde hauen agendetan generoari lotutako gaiak sartzea dela erronka garrantzitsuenetako bat, eta nazioarteko mugimenduaren zenbait esperientzia erakunde hauetan kopiatzea ere bai.

La Vía Campesina-ko emakumeen lanaren lorpen nagusietako bat aipatzearen, La Vía Campesina-ren V. Konferentzian – Maputon (Mozambiken), 2008ko urrian – “isiltasunarekin bukatzea” erabaki zen. Horretarako, mundu mailako kanpaina abiarazi zen landa ingurunean emakumeek bizi duten indarkeria-era guztien aurka, argi utziz bai gizonek eta bai emakumeek gure arteko harreman hobeak lortzeko erantzukizuna dugula, ezinbestekoak baitira gizarte berri bat eraikitzeko (6).


### Campaña Mundial Basta de Violencia contra las Mujeres kanpainari buruzko liburuxkan

ageri den bezala, “Emakumeenganako indarkeria mundu mailan aurki daitekeen fenomeno bat da, edozein gizarte-klasetan, belaunaldi eta sexu-orientazio guztietan, eta hirietan zein landa ingurunean bizi diren emakumeei eragiten die. Errealitate hau datu formal nahiz informaletan egiazta daiteke, baita bizitzako kontaketen, konfidentzien, salaketan bidez ere, eta nekazaritzako emakumeen mugimendu eta erakundeen edota erakunde mistoen aldarrikapenei erreparatuta ere bai. Egoera hau benetakoa da eta ezin dugu ezkutatzen jarraitu!

Badakigu isiltze honen eta isiltzeak dakarren datu eta informazio ezaren erantzukizuna lotuta dagoela mundu osoko emakumeek beren eskubideak hautsi direnean izan duten sufrimenduaren isiltasunaren eta ikusezintasunaren gaineko erantzukizunera.

Engranaje sozial hau argi ikus daiteke testuinguru historikoan eta egun bizi dugun honetan dauden adierazpen kultural ugaritan, unibertso sinboliko, patriarkal eta kapitalistaren menderatzea gailentzen dutenak.

Lurraren aldeko, mugimendu sozialak kriminalizatzearen aurkako eta transnazionalen aurkako borrokarekin batera, emakumeen aurkako indarkeriari “nahiko!” oihukatu behar diogu. Beren gorputzak, subjektibotasuna eta ondasun



*Emakume nekazariak diskriminazio anizkuna bizi dute. Hori argi ikus daiteke beren lanean, gehiegizkoa izateaz gain ikusezina baita, eta askotan ez zaire ordaintzen*

(7) **Manifiesto Internacional de las Mujeres de La Vía Campesina.**

sozialak, kulturalak eta sinbolikoak inbaditzen dira.

Hori ikusita, errealitate horri aurre egiteko moduak aurkitu behar dira, adibidez mugimenduak, emakume nekazarien kolektiboak eta La Vía Campesina osatzen duten landa inguruneak erakundeak.”

Beranduago, 2013an, Jakartan egin zen La Vía Campesina-ko Emakumeen IV. Konferentzia dela eta, **La Vía Campesina-ko Emakumeen Nazioarteko Agiria (7)**, prestatu eta munduko emakumei eta La Vía Campesina-ri helarazi zitzaion, “mundu osoan aurrera eramaten ditugun deliberazioei, lanari, ekintzei eta borrokei gehitzeko. Emakumeak berdintasunean oinarrituta arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte har dezatela lortzeko batasunean eta ekintzan aurrera egitea, eta gure egunerokoan ikusten dugun diskriminazioa gelditzea, landa ingurunean eta komunitate indigenetan, denon zeregina da.” (Ikusi **1. ERANSKINA**)

### 3. FEMINISMOAK ETA EMAKUME NEKAZARIAK EUSKAL HERRIAN

Berez, mugimendu feminista 1960an hasi zen sendotzen Euskal Herrian, frankismoaren aurkako borrokarekin eta euskararen aldeko mugimenduekin batera. Gauzak horrela, emakumeak antolatuta egin ziren Euskal Herriko emakumeen mugimenduaren borroka kolektibo horretan parte hartzeko. Mugimendu horren lehen ekintzak 1968an izan ziren Iparralden **(8)**, Baionako unibertsitatean. Izan ere, bertan jaio zen Emakumeen Askatasunaren aldeko Mugimendua. Mugimendu horren lehen eskakizunak doako abortu askea zuten oinarri, Frantziak 1975ean abortua legez onartu zuen arte.

Bestalde, Hegoalden **(9)**, frankismoaren aurkako erresistentziaren bidez sortu zen mugimendu feminista. Bizitako errepresio gogorra zela eta, hainbat mugimendu sozial sortu ziren. Horiek oinarri, Franco hil eta trantsizio politikoa hasi zenean, mugimendu feminista eratu zen Hegoalden. Trantsizioak ekarri zuen egoera politiko berriarekin, mugimenduak berrantolatuz eta ikuspegi berriak hartuz joan ziren. 80ko hamarkadan, mugimendu ekologistak, lesbianen eta ikasleen taldeak sortu ziren, horien artean feministena. .

1980tik gaur arte, mugimendu feministak lehenetsunak izan ditu Euskal Herrian. Bere eskakizunak onartuz joan dira, adibidez, emakumeen aurkako indarkeria zigortzea, 1980ean; 1982an politikan parte hartzeari buruzko legea onartu zen, hauteskunde-prozesuetan ordezkarien %25 emakumezkoak izan behar direla ezartzen duena; 1992anlaneko jazarpenak zigortzeko legea onartu zen; eta 2000. urtean Berdintasunari buruzko **(10)** legea onetsi zen.

Beranduago, emakumeen eskakizunak areagotu eta dibertsifikatu egin dira. Horri esker, emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten hainbat erakundeak eta kolektibok bat egin dute. Emakumeen eskakizunen artean emakume nekazariak daude. Beste kolektiboek bezala (migratzaileak, lesbianak, etab.), eskubide berdintasuna eskatzen dute landa ingurunean.

**(8) Iparralde** euskarazko hitza da, Frantziari dagozkion euskal probintziak biltzeko erabiltzen dena..

**(9) Hegoalde** euskarazko hitza da, Espainiari dagozkion euskal probintziak biltzeko erabiltzen dena.

**(10)** Epelde, Edurne; Aranguren, Miren; y Retolaza, Iratxe (2015): **Gure genealogía feminista. Euskal Herriko Feministaren kronika bat.** Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro Feminista. Gaztelaniazko itzulpena 23.-40. orrialdeetan.

## 4. EUSKAL HERRIKO EMAKUME BASERRITARRAK: ERAIKITZEN ARI DEN NEKAZAL FEMINISMOAREN LORPENAK ETA ERRONKAK

Euskal Herrian, landa inguruneak eta hiriak bata bestearengandik gertu daude eta haien arteko lotura dago. Baserrietan **(11)** bizi diren pertsona askok ez dute lotura zehatzik landa ingurunearekin. Bertan bizi dira, baina besterik ez. Hemen, emakume baserritarrei **(12)** buruz ari garenean, landa ingurunean bizi diren emakumeek ari gara, beren jatorria hori edo beste bat bada ere. Askotan, baserrietan bizi dira, hau da, hirigunetik aldentuta egon ohi diren familia bakarreko etxeetan, nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi batean kokatutakoak. Beren bizitokian landa ingurunearekin eta lurrarekin lotura duten emakumeak, elikagaiak ekoizten dituztenak, ingurumena eta biodibertsitatea babesten dutenak, haziak gorde eta partekatzen dituztenak, eta kultura eta baserriko bizimodua iraunarazten dituztenak. Emakume baserritarrak.

Lehenago ere aipatu dugun bezala, ekoizpen arduratsuan oinarritutako bizimodu hori ez dator bat sistema neoliberalarekin eta horren merkatu logikekin (ondasun naturalak salgaitzat hartzen dira; ondasunen eta zerbitzuen pribatizazioak modu intentsiboan ekoiztera eta haziak erostera behartzen ditu ekoizleak; eta dumping delakoa bezalako sistema maltzurrei mesede egiten die). Ekoizpen txikiak arriskuan daude, gero eta gehiago, eta ekoizteko sistema berriak eutsiezinak, kutsagarriak eta osasunerako kaltegarriak dira.

Bestalde, sistema kapitalista eta patriarkatuak bi era desberdinetan zapaltzen ditu emakume baserritarrak: beren lana ikusezin bihurtzen du; emakumeek ekoizteko behar dituzten tresnetarako sarbidea oztopatzen du; eskala txikian egiten dituzten jarduerak mugatzen ditu, egin beharreko lanaldi anitzak eta emakumeen aurkako indarkeria betikotzeaz gain.

### ONDASUNETARAKO SARBIDEA

Sistema kapitalistak ekoizpen eredu intentsiboa bultzatzen du, nekazaritzarekin negozioa egiten duten multinazionalen laguntzarekin. Horretarako, lurrez jabetzen da, ondasun kolektiboak

pribatizatzen ditu (adibidez, ura eta haziak) eta biodibertsitatearen galera bizkortua eragiten du. Munduan, Euskal Herrian ere, lurrik pilaketaren ondorioz, nekazariak lantzeko lurrik gabe geratzen ari dira, eta kasu askotan, gainera, lurretatik kanporatzen ari dira, nahiz eta betidanik bertan bizi izan diren eta mantentzeko bide gisa erabili izan duten. Honek emakumeei eragiten die bereziki, bi arrazoiengatik.

Hasteko, emakume baserritarrek betidanik izan dute sarbidea ustiategietara, familiaren jabetzakoak zirelako edo ezkontzean beren bizitokia utzi eta senarraren baserrira joaten zirelako bizitzera eta bertan lanean hasi. Kasu gehienetan, gizona da lurraren jabea. Emaztea ez da titular gisa ageri edo kotitularra da. Praktikan, horrek esan nahi du ezin dutela sorospenik edo laguntzarik jaso, ez dutela gizarte segurantzaren kotizatzen eta bestelako lan-eskubideak ere ez dituztela. Ondorioz, ekoizpenean egiten duten lana ikusezina da eta ez da aintzatesten, ezin dituzte dagozkien eskubideak erabili eta ezin dute erabakirik hartu ustiategiari lotuta.

Historian zehar, emakume gutxi izan dira Euskal Herrian zentzu horretan legez aintzatesi direnak. Gaur egun oraindik emakume bakar batek egiten du lan nekazaritzan lan bera egiten duten bi gizon bakoitzeko. Baina badakigu baserrian dauden hamar emakumetatik gutxienez zortzik nekazaritzan egiten dutela lan. Horien %68k ez dute gizarte segurantzaren kotizatzen, oraindik ere arraroa baita emakumeak ustiategiaren jabeak izatea; eta, ustiategia beren izenean dagoenean, kotitularrak izan ohi dira **(13)**. Hori ikusita, emakume baserritarren kolektiboak **titularkidetasuna** eskatzen zuen, 2011n lortu zena.

Orduz geroztik, EUSTATEN 2008ko eta 2012ko Emakumeak euskal landa ingurunean inkestako emaitzak alderatuta, “egun langileen artean emakumeak dituzten (balio ekonomikoarekin) nekazaritzako ustiategiaren %46k emakumeak dituzte titular, kotitular edo titulartasun partekatuta gisa, hau da, 2008ko inkestan erregistratutako datuetan baino 4 puntu gehiago”. Eta gero eta gehiago dira “dagozkien eskubide horietako batzuk erabili ahal izateko, estrategiak garatu dituztenak; adibidez, beren bikotearekin batera sozietate zibil gisa inskribatu, bi bazkide arrunt izango balira bezala; emakumeei mesede egiten dieten gaur egungo laguntzak aprobetxatu jarduera zabaltzeko, hedapen horren titularrak izanda; eta beren bikotearentzako lan egiten duten soldatapeko langileak

---

**(11) Baserri**, euskarazko hitza: basetxea, landetxea.

**(12) Baserritarra**, euskarazko hitza: baserrian bizi den pertsona; nekazaria.

---

**(13) Arriola, Iratxe; Gómez, Henar; eta Iturbe, Ainhoa (2009): La mujer baserritarra, esa valiosa especie en peligro de extinción**, en Entrepueblos.



izan, gizarte segurantzaren kotizatu ahal izateko. Estrategia horiek guztiek emakumeek ahalduz balio dute, bakoitzak neurri batean laguntzen baitu emakumeek nekazaritzan egiten duten lana ikusgai egiten eta aintzatesten. Hala ere, oraindik ez da aintzatesten emakumeek ezkontide bezala egiten duten ekarpena” (14). Gainera, titulartasun horrek eskubide parekatuak oztopa ditzake beste elementu batzuk ere (adibidez, ULUak, Urteko Lan-unitateak) definitzen ez badira.

Horrez gain, emakume baserritarrak lurrera eta baserrira lotuta egon dira beti. Haiek mantendu izan dute baserria gehien bat, ez baitziren soilik unitate ekonomiko eta familiarrak. Gizartean, kulturaren eta **bizimoduan** ere ekarpen handia egin dute. Eta izugarriko proiektuek, desjabetzeek edo txandakatzeko ezak lotura hori mehatxatzen dutenean, ondorioak larriak dira haientzako: bizibidea harian-harian egoteaz gain, beren nortasunaren eta historiaren zati bat ere galtzen dute. “Gehienak nahiko nagusiak dira, baina oraindik ere beren baserrietako euskarriak dira. Duela zenbait hamarkada, baserrietako gizonak baserriko lana lantegiko lanaldiarekin bateratzen hasi ziren. Ondorioz, baserriko lanaren zati handi bat beren gain hartu behar izan zuten emakumeek. Eta emakumeek arduratu ziren antzinako jakintzak transmititzeaz” (15).


Emakume baserritarrak **haziaren zaintzaileak** izan dira beti. Betidanik, haiek arduratu dira haziak libreki hautatzeaz, gordetzeaz, berreskuratzeaz eta partekatzeaz. Haziak salgaitzat hartzen dituzten legediek, haziak patentatzea eta pribatizatzea proposatzen dutenek, herriko jakintzak, kultura eta biodibertsitatea mantentzen laguntzen duten tradizioak kriminalizatzen dituzte. Euskal Herrian, emakume baserritarrek badakite haziaren zaintzea eta ezagutzak transmititzea oso garrantzitsua dela, bai jarduera orain hasten duten gazteei bai luzaro horretan daramatenei. Hori dela eta, lanean ari dira ezagutza horiek jasotzeko eta transmititzeko, erresistentzia modu gisa.

## LAN IKUSEZINA

“Historikoki, gizakien ugalketari, **bizitzaren iraunkortasunari** edo elikadurari lotutako jarduerak, nahiz eta guztiak bizirauteko beharrezkoak diren, ez dute gizartearen esker ona eta ez dago haiek

(14) Urretabizkaia Gil, Leticia: **Mujeres baserritarras en movimiento: ¿Cómo conseguir mundos agrarios más feministas y feminismos más agrarios?**

(15) Arriola, Iratxe; Iturbe, Ainhoa eta Gómez, Henar (2009): **Las mujeres alimentan el mundo. Soberanía Alimentaria en defensa de la vida y el planeta.** Entrepobles. 3. Atala.



*Emakume nekazariak arduratu  
dira beti haziak hautatzeaz,  
gordetzeaz, berreskuratzeaz eta  
partekatzeaz*

ekonomikoki saritzen dituen gizarterik” (16). Gizarteak egiten duen balio gabetze honek eragin bikoitza du emakume baserritarren, nekazaritzako ustiatzean egiten duten lanari ez baitaio garrantzia handia ematen eta gizartean “lagundu” egiten dutela esan ohi da (zenbait emakumeek ere hala uste dute). Beren langile izaera ez arautzean (gizarte segurantzako kostu izugarriak ustiatzean izateagatik, gizonen lana arautzeari lehentasuna ematea, emakumeen lana gutxiesteak) are ikusezinagoa da egiten duten lana.

Emakume baserritarrak arduratu dira familiarteko bizitza mantentzeaz eta familia, animaliak eta landareak zaintzeaz. Zainketa lana, familian ez ezik, naturan ere burutu dute. Horrez gain, elikagaien **eraldaketan** ere parte hartu dute, eta ezagutza horiek beste emakumeekin partekatu. Bestalde, merkataritza ere beren gain hartu dute, merkataritza zuzenari lehentasuna emanaz, **merkatuetako** espazio publikoan kokatuz, lurraldeko gizarte-bizitza eta bizitza ekonomikoa dinamizatzeako harremanak sustatuz.

Azken urtean, **Emakume Nekazarien Estatutua** (17) garatu du Eusko Jaurlaritzak helburu honekin: “emakumeek nekazaritzan pairatzen duten diskriminazioari aurre egitea, batez ere aintzatespen profesionalari eta gizarte-balioespenari lotuta”. Estatutu hau emakume baserritarren lana ikusgai egiteko

(16) Caro, Pamela: **Soberanía alimentaria: aproximaciones a un debate sobre alternativas de desarrollo y derechos de las mujeres.**

(17) **Estatuto de las Mujeres Agricultoras.**

aurrerapausoa bada ere, arazoa oraindik ere bertan dago. Izan ere, elikagaien eraldaketa eta merkaturatzea ez dira “nekazaritzako jardueratik zuzenean eratorritako lantzat” hartzen, eta ondorioz emakume asko Estatutu honetatik kanpo geratuko lirateke.

## PARTE-HARTZE POLITIKOA

Emakumeen parte-hartzea politikan mugatuta egon da historian zehar, dagoeneko zeregin gehiegi zituztelako eta arlo hori, beste hainbat bezala, gizonena zelako. Nekazaritzan are nabariagoa da egoera hori, emakumeek lan ugari burutzen baitituzte (etxeko lanak eta nekazaritzari lotutakoak ez baitira banatzen) eta nekazaritzako erakundeak eta sindikatuak gizonenak izan baitira beti.

Gai hori jasota dago Emakume Baserriarren Estatutuan, baina zaila da hori betetzea, horretarako emakumeek egiten dituzten lanorduak zehaztu beharko lirateke eta. Halaber, historikoki gizonen egokitu zaizkien arloak direnez, emakumeak poliki-poliki sartu behar dira. Alde batetik, berdintasunaren aldeko genero-taldeak eta berregituraketak sustatu behar dira erakundeetan; bestetik, emakumei lagundu behar zaie sektore horretan sartzen, jardun nahi dutenei prestakuntza eskainiz edo emakumeen ekoizpen-taldeak sortuz. Pixkanaka-pixkanaka, “landa inguruneak eta hirietako emakumeak gerturatzen ari dira, **feminismoa nekazaritzara ekartzeko** eta landa ingurunea feminizatzeke” (18).

“Hirietako” emakumeekin, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin sendotutako lotura horri esker, emakume baserriarren lana argiago ikusten da, eta alternatibak bilatzen dira horiei eragiten dieten zapalketei aurre egiteko, talde bakoitzaren ezaugarriak ahaztu gabe.

Horren adibide da **Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutuna (19)**, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxarena. Bertan, arreta berezia behar duen sektoretzat hartzen da “lanean diskriminazioa pairatu edo pairatzen duten emakume baserriarrenak”. Beste adibide bat Emakumeen Munduko Martxaren IV. Nazioarteko Ekintza, 2015 da. Horien bien ikurra haziak dira, “Elikadura Burujabetzaren aldeko borrokaren sinbolo gisa”.

---

(18) Arrien, Arantxa: **Enlazando Feminismos y Soberanía Alimentaria para la autonomía de las mujeres y los Pueblos**. Mundubat.

(19) **Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutuna**. (2007)

Bestalde, emakume baserriarrek gero eta espazio zabalagoa hartzen dute nekazaritzako mugimenduan, Etxalde (20) bezalako kasuekin. Mugimendu hori oraindik abiarazten ari da. Euskal Herriko baserriarrek eta nekazaritzari lotutako bestelako pertsonak osatzen dute. Emakumeek ordezkapena dute mugimenduaren hainbat mailatan, kolektibo horren barruan aurrera egiten dute espazio propioa izateko eta harremanetan daude mugimendu feministekin.

## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA

Landa ingurunean genero-indarkeriak dituen ezaugarriak eta emakume baserriarrek non bizi diren eta lan egiten duten jakinarazteko xedearekin Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek egin duten ikerketen arabera, zera esan dezakegu: “beharbada, indarkeria agerian uzteko eta auzokoen laguntza lortzeko oztoporik handiena, landa inguruneetako (udalerrri txikiak edo baserri osatutako auzoak) lehen mailako kontrol soziala da, genero-aginduak tartean.

Gertutasuna nabari den testuinguru batean, genero-indarkeriako kasuak ezagunak izateak, emakumeentzako laguntza eta babesa areagotzeko balio izan ordez, haiek kritikatzeko erabiltzen da. Erasotzaileekin ez da hala gertatzen, auzokoen isiltasunean eta emakumeen lotsan nolabait inpunitatea aurkitzen baitute. Banaka galdetzean, emakumeek onartu egiten dute beren maitasun harremanean ez dutela inongo tresnarik indarkeria psikologikoa antzemateko. Neurri handi batean, eredu familistan oinarritutako hezkuntza eta patriarkatuak sorrarazitako maitasunezko ereduiei botatzen diete errua” (21).


---

(20) **Etxalde** baserriarrek (nekazariak) eta Euskal Herriko nekazaritzarekin lotura duten bestelako pertsonak osatzen duten mugimendua da. Euskal Herrian elikadura burujabetza erakitzea da bere helburua, nekazaritzaren bitartez. Horretarako, hauetan oinarritzen da: erakunde eta justizia sozialaren balioak; enpleguaren sorreraren eta ekoizteko eskubidearen banaketa; gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; ondasun naturalen zentzuzko erabilera; biztanle guztientzako elikadura osasuntsua; eta Euskal Herriko nekazaritzan eta ekoizpenean dibertsitatea errespetatzea.

(21) **Informe de identificación de necesidades y obstáculos encontrados por las mujeres víctimas de violencia de género del área rural de Bizkaia en el acceso efectivo a los servicios y prestaciones de apoyo, atención y justicia**. Bizkaiko Foru Aldundia, Argituz.

Isolamenduak edo hirietaraino zein laguntza zerbitzuetaraino dagoen distantziak ere zailago egiten dute informazioa eskuratzea, salaketa jartzea eta baliabideak gertu izatea. Hortaz, garraioak garrantzia izugarria du emakumeen autonomia bermatzeko.

Emakume baserritar askoren kasuan, etxea/ustiapen-unitatea/ lana/enplegua lotura nahasia, titulartasuna eta laneko erregulazio eza direla eta, mendekotasun ekonomiko handiagoa dute, indarkeria gertatzekotan zailagoa da haientzako etxetik irtetea eta beren bikotekideek eragin diezaieketen mendekotasun ekonomikoaren aurrean egoera askoz ere ahulagoan bizi dira. “Testuinguru honetan, eta bikotearengandik banatzean emakumeek beren gain hartu ohi dituzten familia-erantzukizunak gogoan izanda, ohikoa izaten da indarkeriatik aldentzean pobretze ekonomikoa bizitzea”. **(22)**.



**(22) Necesidades, obstáculos y buenas prácticas en los itinerarios de salida de la violencia de género desde la experiencia de mujeres del área rural de Araba.** Arabako Foru Aldundia, Argituz.

## 5. ERRONKAK

Emakume baserritarren egungo egoera ikusita, Euskal Herriko Elikadura Burujabetzarako bidean beren ikusgaitasuna, aintzatespena eta zeregina sustatuz, hona hemen hausnartzeko eta bide honetatik aurrera egiteko zenbait erronka:



> Nola ikusarazi eta aintzatetsi dezakegu emakume baserritarren egoera dibertsitatetik abiatuta arlo desberdinetan? Adibidez baliabide eta ondasunetara duten sarbidea eta horien gaineko kontrola, parte-hartze soziopolitikoak, indarkeriarik gabeko bizitza eta zainketetarako eskubidea. Eta nola har ditzakegu egoera hori hobetzen lagunduko duten neurriak?

> Nola aintzatetsi eta baloratu beren jakintzak eta ekarpenak? Izan ere, ezinbestekoak dira elikagaien ekoizpen iraunkorreko ereduak eraikitzeak.

> Nola sustatu emakume baserritarrak ahalduntzeko eta antolatzekeo prozesuak?

> Nola sortu sareak eta aliantzak hirietako eta landa ingurunekeo emakumeen artean? **(23)**



**(23) Sembrando soberanías para otros modelos de vida en Euskal Herria. Algunas propuestas para la construcción de políticas públicas locales desde la Soberanía Alimentaria.** Bizilur eta Etxalde, 2015.

# ERANSKINA

## LA VÍA CAMPESINA-KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO AGIRIA

### EMAKUMEEN IV. BATZARRA, YAKARTA, 2013KO EKAINA

Munduko emakume nekazariak gara. La Vía Campesina-ren azken 20 urteetan irmo lan egin dugu mugimendu unibertsala, zabala, demokratikoa eta politikoki zein sozialki konprometitua eraikitzeko. Horren bidez, nekazarien nekazaritza eta elikadura burujabetza babesteaz gain, lurraldean, lurraldeen, justiziaren, duintasunaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde ere egiten dugu.

Kontinente eta kultura ezberdinetako emakumeak gara. Bizitzaren aldeko borrokek, burujabetzaren eta gure herrien aldekoek lotzen gaituzte. Bat egin dugu elikadurarako eskubidea, nekazarien nekazaritza, biodibertsitatea eta gure ondasun naturalak babesteko behar etiko eta politikoa dagoelako, eta edozein indarkeria-motari aurre egin behar zaiolako. Sistema ekonomiko kapitalista eta patriarkal honek indarkeria areagotu du.

“La Vía Campesina izeneko mugimenduak erabateko berdintasuna sustatzen du emakumeen eta gizonen artean”. Hori argi eta garbi ageri da gure III. Nazioarteko Batzordearen ondorioetan, Bangaloren egindakoa. Egiturazko aldaketak eginez, mugimendu honetan landa inguruneko emakumeek eta gizonek erantzukizunak parekatuko ditugula bermatzen du La Vía Campesina-k. Horren bidez, prozesu ireki eta demokratikoak sendotu nahi dira nazioartean ere bai.

Manifestu eta jarrera hartze politiko hau helarazi nahi diegu munduko emakume

guztiei eta La Vía Campesina-ren VI. Nazioarteko Batzarrari, mundu osoan burutzen ditugun deliberazioen, lanaren, ekintzen eta borroken osagarri gisa. Emakumeak berdintasunean oinarrituta arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte har dezatela lortzeko batasunean eta ekintzan aurrera egitea, eta gure egunerokoan ikusten dugun diskriminazioa gelditzea, landa ingurunean eta komunitate indigenetan, denon zeregina da.

La Vía Campesina-ren bi hamarkada hauetan, borroka eta itxaropenaz beterik, emakumeak ezinbestekoak izan gara etorkizunera begira politikako eta antolakuntzako estrategiak garatzeko orduan. Egunero borrokatu dugu kapitalismo enpresarial eta kolonialak eragiten dituen arpilatsetik, suntsipenetik, heriotzatik eta zapalkuntzatik ama lurra eta gure lurraldeak babesteko.

Bi hamarkada hauetan zehar, aldaketa esanguratsuak egon dira mundu osoko landa inguruneetako emakumeen bizibaldintzetan. Kapitalismoak landa ingurunean egindako zapalkuntzaren eta multinazionalak nekazal elikadura sistemez jabetzearen ondorioz, milioika nekazarik soldatapeko lana egiten hasi behar izan dute. Ondorioz, beharturik lekuz aldatu behar izan dira, lurrak galdu dituzte eta migrazio prozesu nabarmenak egon dira.

Landa inguruneko emakumeen emigrazioak lotura zuzena du pobretzearekin eta


emakumeek zein neskek bizi duten indarkeriarekin. Egoera hau are larriagoa da herrialde hartzaileetan bizi duten diskriminazioarekin. Hala ere, beren familiak mantentzeko funtsezkoak dira, eta kasu ugarian beren etxeetara bidaltzen duten dirua da nekazarien etxeetako euskarri ekonomiko nagusia.

Egungo errealitate honi aurre egitea da emakumeen eta La Vía Campesina-ren helburu nagusietako bat. Munduan bidegabekeria desagerrarazi nahi dugu, **pobreziarekin bukatzeko** eta nekazariok herrietan elikadura nahikoa eta orekatua dagoela bermatzeko dugun erantzukizunari dagokion garrantzia emateko. Eta **prozesu horretan, emakumeek elikagaien ekoizpenean duten funtsezko zeregina aintzatetsi** behar dugu.

Hala ere, zaila da ikustea herrialde gehienetan pobreziak, murriztu ordez,

gora egin duela azken urteetan. Nazio Batuen eta Munduko Bankuaren zenbait erakunde egindako ikerketen arabera, egoera ez da hobetu, baizik eta txarrera egin du eta aberastasunaren banaketan dauden desorekak areagotu egin dira. Landa inguruneko sektoreek egoera etsigarria bizi dute, txirotasun-mailak gora egiten jarraitzen baitu eta oraindik ere emakumeek jasaten baitituzte kalterik larrienak.

Gosea eta indarkeria erabiltzen dira munduko milioika emakumek bizi dugun klaseen, generoen eta etnia desberdinen arteko desparekotasunean. Eta munduko gobernu eta parlamentuek, legeak egitean eta onartzean, etengabe borrokatu behar lukete horiekin bukatzeko. Horrela, mundu osoko landa inguruneko emakumeek eta, oro har, komunitateek bizitza duina dutela bermatuko litzateke.



*Pobreziarekin eta diskriminazioarekin bukatzeko, ezinbestekoa da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea lurralde dagokionez*

## LURRETARAKO SARBIDEA, GURE ESKUBIDE NAĠUSIETAKO BAT

“Guretzako, emakume nekazari eta indigenentzako, ekoizteko bide bat izateaz gain, zentzu zabalagoa du lurra: gune eta giro berezia da bizitzarako eta kulturarako, eta hunkipena, nortasuna eta espiritualtasuna transmititzen ditu. Horrexegatik hain zuzen, ez da salgai bat, baizik eta bizitzaren osagai garrantzitsu bat. Denek izan behar dute hura eskuratzeko eskubidea, kendu ezin den eta betirako den eskubidea, alegia. Eta herri edo nazio bakoitzak definituko ditu jabetza, sarbide eta erabilera sistemak”.

Lurrerako sarbideari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortu beharra dago. Horrela bakarrik lortuko dugu pobrezia eta diskriminazioa etetea. Lurrerako sarbidea merkatuan lortu beharreko zerbait bezala eta jabetasun pribatua bezala ikusteak ez du inolaz ere islatzen emakume indigenen eta nekazarien ikuspegia.

Emakumeok lurra berriz banatuko duen Laborantza Erreforma Integrala eskatzen dugu, gure parte-hartzea eta integrazioa prozesu osoan aintzat hartzen direla, lurrerako sarbidean ez ezik, tresna eta mekanismo guztietarako sarbidean ere berdintasuna bermatuz. Gure lana (ekoizpenean eta berrekoizpenean) balioetsi dadila nahi dugu, landa ingurunean bidezko bizitza duina aurki dezagun.

Nekazaritzan jarduteko eta hobetzeko dugun era babes eta zabal dezala nahi dugu, baita gure haziak, merkatuak, janaria, jakintza, zientzia eta teknologia ere. Gure kulturara eta bizimodura egokitzen diren programa eta politika publikoak susta eta sor ditzala, nekazarion ekoizpena ahalbidetzeko baliabideekin, elikadura burujabetza eta nekazarion eskubideak bermatuz eta justizia soziala oinarri.

Horrela, emakumeok lurrera dugun sarbidea Laborantza Erreforma Integralarekin aldatuko da. Lurra eta nekazarien zein indigenen jarduerak duten eginkizun

sozialean oinarritutako kudeaketa eredua sustatuko du erabileran eta ekoizpenean. Horri esker, bizitzeko oinarritzko eskubidea bermatuko da, elikadurarena, alegia.

## ELIKADURA BURUJABETZA ETA GENERO JUSTIZIA

“Duintasuna eta lurra babesteko, elikagaien ekoizpen propioa bizirik mantentzeko eta sendotzeko, ahal den neurrian guk geuk ekoiztutakoaz hornitzeko, ura babesteko, Elikadura Burujabetza egia bihurtzeko, ordua da emakumeok gure nekazaritzako kulturaren dugun papera zentzu guztietan balioesteko.”

Elikadura Burujabetzaren alde burutzen dugun ekintzak aukera eman digu emakumeoi mundu osoan elikadura sistemen garapenean izan dugun parte-hartze historikoa agerian uzteko. Argi geratu da nekazaritza hasi zenetik izan dugun zeregina, hazien bilketan eta hedapenean eta biodibertsitatearen eta ondasun genetikoaren babesean. Eta horrez gain, oinarri afektibo, etiko eta sozial garrantzitsuenetako bat ere izan gara.

Aurrean elikagaiak prozesatzen dituen industria eta supermerkatu-kate handiak daude; hauek, ekoizpena estandarizatu eta sektorean sortzen diren irabazi gehienak jasotzen dituzte. Kontsumo estandarizatu hori ordeztzeko, elikadura dibertsifikatu behar da, eta harremanak izateko eta kontsumitzeko era berriak bilatu behar dira. Sistema berri horretan, ekoizleen lana balioetsiko da eta kontsumitzaileek soldata duinak izango dituzte, nahi dituzten elikagaiak erosi ahal izateko. (Nyéléni, Mirian Nobre)

### “Elikagaiak ez dira merkatuetako kontua, burujabetzakoak baizik”

kontsignari jarraitzen diogu. Hura oinarri, gure eskubideak definitu ditugu:

erabakitze; hornikuntza antolatze eta gure aukeren eta beharren arabera, kalitateko elikagaiak partekatze eta kontsumitzeko. Lehentasuna ematen diegu alderdi solidarioei, kulturei, sozialei, osasunekoiei eta ongizateari lotutakoiei, gure familien eta nekazarien zein indigenen komunitateen alde.

Elikadura Burujabetzaren aldeko borrokari tinko eutsi diogula esan dezakegu. Bide horretan, irmo borrokatu dugu ezarritako helburuetako baten alde: “gure jakintza guztia erabiliz, haziak berreskuratu, haiek areagotu, zaindu, partekatu eta gure lurretan berriz aske haz eta areagotu daitezela utzi, inolako eragozpenik edo erasorik gabe”. Honek zuzenean kontra egiten die jabetza intelektualari, ziurtapen araei, organismo transgenikoei eta agrotokikoei.

Halaber, familietan eta mugimenduetan dauden lan- eta botere-harremanak aldatzera ere bideratu dira gure ildoak; emakumeok elikagaien ekoizpenean dugun izaera ekonomiko eta produktibo balioesteko, ezinbestekoak dira banakako prozesuak eta prozesu kolektiboak, emakumeonak eta gure bikotekideenak. Halaxe lortuko dugu emakumeon lanak nekazaritzan, familia-ekonomian eta nazioetako adierazle makroekonomikoetan duen ekarpen ekonomikoa aintzat hartzea.

Ziur gaude La Vía Campesina-ren proposamenik esanguratsuen eta iraultzaileena izan dela Elikadura Burujabetza eta FAOren zein Gobernuen helburuak aurrez-aurre jartzea, eta Elikadura Burujabetzaren bidez gosea desagerrarazten saiatzea. Zentzu horretan, Elikadura Burujabetzaz ari garenean, elikagaiak eskura izatea eta horiek erosteko baliabide ekonomikoak izatea esan nahi dugu. Merkatuaren bidez konpondu nahi da munduan mila milioi baino biztanle

*Politika neoliberalak zapalkuntza eta diskriminazioa larriagotu dituzte eta horien ondorioz emakumeenganako indarkeria ere areagotu egin da landa inguruetan*

gehiagok bizi duten zigorrik larrienetako bat: gosea.

## NEOLIBERALISMOAREN ETA PATRIARKATUAREN AURKA BORROKATZEN DUGU, GURE ESKUBIDEEN ALDE

“Historian zehar, emakumeek nekazaritzako eta elikaduraren inguruko ezagutzak sortu dituzte, eta oraindik ere herrialde txiroenetako elikagaien %80 ekoizten dute. Egun, biodibertsitatearen eta laborantzako hazien zaintzaile nagusiak dira, baina aldi berean kaltetuenak dira, politika neoriberalen eta sexisten ondorioz.” Emakumeen aitorpena, Nyeleni)

Politika neoriberalak, landa inguruneko nesken eta emakumeen aurkako zapalkuntza, diskriminazioa eta indarkeria areagotu dituzte. Are gehiago, emakumeek lanean duten egoera ezegonkortu dute, eta babes sozial eza ere agerikoa da. Esplotatu egiten gaituzte, lanaldi gero eta luzeagoekin, indarkeriaz tindatutako giro batean eta gure duintasuna erabat ahulduz.

Patriarkatuaren aurkako borroka eta borroka antikapitalista, sexuen arteko berdintasunaren aldeko borrokaren parean gertatu behar da, baita gizarte tradizionalen zapalkuntzaren eta gizarte moderno sexisten, indibidualisten eta kontsumisten aurkako borrokaren parean ere, merkatuaren nagusitasunean oinarritzen baitira horiek. Gure proiektu politikoak munduaren ikuspegi hobea eraikitzea du helburu, errespetuan, berdintasunean, justizian, solidaritatean, bakean eta askatasunean oinarrituta, eta denon artean borrokatuz, xede honekin:

> Berehalako ekintzak bideratzea eta neurriak hartzea erakundeetan, familian eta gizartean indarkeriako praktikak eta praktika sexistak guztiz eteteko, eta

ahozko erasoekin edo eraso fisiko zein psikologikoekin bukatzeko.

> Genero berdintasunaren eta diskriminazio ezaren alde.

Landa ingurunean dauden indarkeria-mota guztiei aurre egitea, eta munduko herrialde gehienetan dauden mugimendu eta borroka sozialen militarizazioaren eta kriminalizazioaren aurka jardutea. Horri terrorismoaren aurkako legeak gehitu behar zaizkio, sarritan nekazarien eta indigenen aurka erabiltzen baitira. Haiek izaten dira legearen izenean gauzatzen diren erasoen eta gehiegikerien biktima nagusiak.

> Gure lurraldeetan eta mundu osoan justiziaren, berdintasunaren eta bakearen alde tinko borrokatzea erabaki dugu, eta hala adierazten dugu.

> Gure mugimenduak behar diren proposamenak eta jarduera ildoak antolatzea, prestakuntza soziopolitikoan eta teknikoan aurrera egiteko, metodo pedagogikoak erabiliz. Horien bidez, komunitateak kontzientziatu nahi dira, ikuspegi politiko eta kulturalak genero-berdintasunean aurrera egitea eragozten dutela uler dezaten.

> Landa inguruneko emakumeen parte-hartzea sendotzea politika publikoen proposamenetan eta programetan, barnekoak zein kanpokoak, eta horien kudeaketan ere bai. Horien bidez, beren garapenerako baliabideak bermatuko dira, bai maila lokalean bai globalean, eta hezkuntzara eta teknologiarara duten sarbidea zabaldu.

> Patriarkatuari aurre egiteak, gizonezkoen nagusitasunaren pribilegioak eta mitoak aitortzea eskatzen du, eta aldi berean buruzagiekin sozializatu eta haiek kontzientziatu behar dira, emakumeen

historia aztertuz, merezi duten aintzatespena izan dezaten.

Orain arte, emakumeek lidergoa beren gain hartu dute. Baina berdintasunean oinarritutako parte-hartzea behar da, aitorpenetatik ekintzetara igaro beharra dago. Emakume nekazariak antolatu egin gara eta ziur gaude etorkizuna aginduzkoa dela. Aurrerapausoak ematean eta lorpenak egin ahala ez dago atzera egiterik, batez ere emakumeen kontzientzian.

“Lurraren, lurraldearen eta gorputzaren burujabetzaren” alde borrokatzea, emakumeen aurkako indarkeriari, edozein motatakoa dela ere, ezetz esanez.

Hori dela eta, inspirazioa aurkitu dugu Latinoamerikako emakumeen debateetan eta “Nekazal eta Herriko Feminismoaren” oinarriak eraikitzeke prozesua bultzatzeko duten proposamen politikoan, eta orain erronka berri bat du gure Batzordeak: borrokaldi hau nazioartean ere hedatzea, La Vía Campesina-ren erakundeetara.

## BORROKEN ETA ITXAROPENEN EREILEAK, FEMINISMOAREN ETA ELIKADURA BURUJABETZAREN ALDE



**VSF-Herrien Bidezko Elikadura**

[www.vsf.org.es](http://www.vsf.org.es)

**EHNE Bizkaia**

[www.ehnebizkaia.eus](http://www.ehnebizkaia.eus)

**BIZILUR-Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea**

[www.bizilur.org](http://www.bizilur.org)

**Mundubat**

[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)

**Emaús Fundación Social**

[www.emaus.com](http://www.emaus.com)

**La Vía Campesina**

[www.viacampesina.org/es](http://www.viacampesina.org/es)